

## 1. Eranskina. Elkarrizketako galderak

### Sormena eta adimen emozionala

---

#### 1. Irakasleei zuzendutako galderak

- \* Ikasle guztiak desberdinak dira eta beraz, irakasle moduan haien beharrianetara egokitzeko beharra daukagu. Gaur egungo sisteman uste duzu hau posible dela Lehen Hezkuntzako geletan?
- \* Teoria hau praktikara eramatea lortzen dugu? Non dago zailtasuna? Zeintzuk dira aurkitu dituzun arazoak hau lortzeko?
- \* H. Gardner psikologoak, Adimen Anitzen teorian dioen moduan, adimen mota asko daude eta pertsona bakoitza, batean edo bestean nabarmendu daiteke. Teoria hau ezagutzen duzu?
- \* Horrela bada, kontutan hartzen duzu klaseak prestatzerako orduan?
- \* Uste duzu, ikasleen trebetasunak edo interesak kontutan hartzen dituen eta hauek bultzatzen dituen hezkuntza burutzea posible izango litzatekeela? Nola?
- \* Adimen mota guztien artean, adimen emozionala daukagu. D. Goleman psikologoaren arabera, norbere buruaren zein beste inoren sentimenduak antzemateko, geure burua motibatuzeko, harreman egokiak mantentzeko eta emozioak sentitzeko, ulertzeko, kontrolatzeko eta aldatzeko gaitasuna da. Ba al dago honekin lotuta dagoen zerbait eskolako proiektu edo planifikazioaren barruan?
- \* Nola, non eta zer nolako jarduerak egiten dira honelako gaitasunak gela barruan lantzeko?
- \* Adimen emozionala garatzen laguntzen duen eragileetariko bat sormena da. Sormenarekin lotutako zerbait aipatzen da eskolako proiektuan edo programazioan?
- \* Nola lantzen duzu sormena klase barruan?
- \* Zer nolako zailtasunak nabaritzen dituzu sormena eskolan bultzatzeko?
- \* Zein irakasgaietan uste duzu landu ahal direla hobeto sormena eta adimen emozionala? Zergatik?
- \* Zure ustez, honelako gaitasunak lantzea baliagarriak dira ikasleentzat? Garrantzia gehiago eman behar zaie?

---

## 2. Psikologian adituei zuzendutako galderak

Sorkari psikologia-zentroa, urte asko daramatza bai ume, zein helduei laguntza psikologiakoa eskaintzen. Honezaz gain, hazkuntza tailerrak ere eskaintzen ditu, edozein adineko pertsoneri zuzendutako garapen pertsonalerako ekintzak hain zuzen ere. Lehen Hezkuntzako umeekin duten esperientzian oinarrituta, zer nolako ekintzak planteatzen dituzten ezagutuko dugu.

- \* Zeintzuk dira zentroaren ardatzak edo oinarriak? Zertan oinarritzen zarete tailerrak prestatzean?
- \* Adin askotako umeekin lan egiten duzue. Zeintzuk izaten dira gehien ikusten dituzuen arazoak? Planteatzen dituzuen tailerrak hauei zuzenduta egoten dira?
- \* Proposatzen duzuen hurrengo tailerra adimen emozionala eta sormenari buruzkoa da. Zergatik aukeratu dituzue bi kontzeptu hauek? Zer nolako lotura dutela uste duzue?
- \* Zer motatako metodologia edo teknika erabiltzen duzue honelako kontzeptuak umeekin zein nagusienekin lantzeko?
- \* Ikusi duzuenaren arabera, sormena edo adimen emozionala umeentzako onuragarriak dira? garrantzitsuak dira umeen garapenerako?
- \* Gehienetan, hezkuntzaren barruan honelako kontzeptuak alde batera uzten dira. Uste duzue ez zaiela behar beste garrantzia ematen? Zergatik?
- \* Zer egin daiteke hutsune hori betetzeko?
- \* Zer gomendatuko zenioke honelako planteamendua aurrera eramane nahi duen irakasle bati? Zergatik da garrantzitsua honelako gauzei hezkuntzan lekua uztea?